



PROGRAMA	PROGRAMA
4713 HABE	4713 HABE
ARDURADUNA	RESPONSABLE
44 HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA	44 INSTITUTO DE ALFABETIZACIÓN Y REEUSKALDUNIZACIÓN DE ADULTOS
HABEREN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE HABE

HELBURUA

- HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRÍCULUMAREN DISEINUA ETA EGIKARITZA
- MATERIALGINTZA-PROIEKTUAK ETA HOMOLOGAZIOA
- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA
- IKERKETA-LERROAK
- BEKAK
- ARGITALPENAK
- ONDARE BIBLIOGRAFIKOA ZABALDU ETA LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK HEDATU
- BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA
- EUSKALTEGIEN ETA BESTELAKO ZENTRO HOMOLOGATUEN JARDUERAREN ERAKETA ETA JARRAIPENA
- EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEKO SEKTOREAREN FINANTZAZIOA
- IKAS-IRAKASPROZESUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA
- TEKNOLOGIA BERRIEZ BALIATUZ, ETENGABEKO HOBETUNTZA SUSTATU EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN

BETETZE MAILA

- HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRÍCULUMAREN DISEINUA ETA EGIKARITZA

• Helduen euskalduntzearen araubide akademikoaren baitan, HEOCaren egitura eta deskribapena HABEren egitasmoen eta euskaltegien zereginen ardatz bilakatu da, betiere, helduen euskalduntzearen ikasprozesua sei mailatan egituratuz, eta ikaskuntzaren metodologia elkarreragin soziodiskurtsiboan ardaztuz, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarrituz, ekintza komunikatiboetan definituz eta metodologia bera euskararen ezaugarri eta ezagutzen duen egoera

OBJETIVO

- DISEÑO E IMPLEMENTACIÓN DEL CURRÍCULO BÁSICO PARA LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA A PERSONAS ADULTAS
- PROYECTO DE ELABORACIÓN Y HOMOLOGACIÓN DE MATERIALES
- FORMACIÓN DEL PROFESORADO
- LÍNEAS DE INVESTIGACIÓN
- BECAS
- PUBLICACIONES
- AMPLIACIÓN DEL FONDO BIBLIOGRÁFICO Y DIFUSIÓN DE LOS SERVICIOS DE LA BIBLIOTECA
- IMPULSO Y COORDINACIÓN DE POLÍTICAS DE IGUALDAD
- ORDENACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LA ACTIVIDAD DE LOS EUSKALTEGIS Y DEMÁS CENTROS HOMOLOGADOS
- FINANCIACIÓN DEL SECTOR DE LA EUSKALDUNIZACIÓN-ALFABETIZACIÓN
- SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PROCESO DE ENSEÑANZA-APRENDIZAJE
- APROVECHAMIENTO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS PARA LA MEJORA CONTINUA EN LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA

GRADO DE CUMPLIMIENTO

- DISEÑO E IMPLEMENTACIÓN DEL CURRÍCULO BÁSICO PARA LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA A PERSONAS ADULTAS

• Se ha implementado la estructura y los contenidos del HEOC en los programas de HABE y en las actuaciones didácticas de los euskaltegis, estructurando el proceso de aprendizaje de euskera a adultos en seis niveles, y adoptando una metodología de aprendizaje basada en el enfoque comunicativo de la lengua, centrada en la interacción sociodiscursiva, definida en actividades de lengua y adaptada a las características del euskera y a su situación sociolingüística.



soziolingüistikora egokituz.

- Europako hizkuntzen eremuan helduen bigarren hizkuntzen irakaskuntzan indarrean dauden irizpide curricularrak HEOCean jarritakoekin alderatu ondoren, eta 2020ko irailaren 9ko Aginduak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenak, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautu eta euskarazko helduentzako dirulaguntzen deialdiarako irizpideak finkatzen dituen xedapenaren edukietan Curriculumaren alorrera ekarritako berrikuntza eta aldaketak kontuan hartuz, HEOCaren eguneratzea gauzatzen jarraitu da.
- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumera bildutako irizpideak langai curricularretara eraman dira izaera desberdineko euskarriak sortuz eta landuz (testu-ereduak, dokumentu osagarriak...).
- Indarrean dagoen araudiaren arabera eta, euskaltegiei onartutako curriculum-proiektuetatik ondorioztatutako hobekuntza-eremuak kontuan hartuta eta HEOCak ezarritako gidalerroei jarraikiz, sekuentzia didaktikorako ereduen lanketarako, euskaltegiekin eta euskararen autoikaskuntzarako zentroekin elkarlanean aritzeko elkarrekintza-eremuak sortu dira.
- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren inplementazio eta garapena elkarrekintzan bidera dadin, komunikabideak zabaldu zaizkie euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei euren curriculum-proiektuak burutu ondoren egokitzapenak bideratu ahal izateko.
- Euskaltegiei, beren Curriculum Proiektua garatzeko eta eguneratzeko aholkularitza-zerbitzu teknikoa eskaini zaie.
- Egiaztatze-prozesuetan euskara-ikasle helduen komunikagaitasun-mailari buruzko informazioa eskaintzeko oinarrizko diren hizkuntza-trebetasun ezberdinei dagokien deskriptoreak aztertu, balioetsi eta berregokitzen jarraitu da.
- Euskararen eremu administratibo guztietarako baliagarri izango den Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum partekatua ezartzeko bidean Erakunde eta sail ezberdinen arteko harreman-eremuan urratsak eta hurbilketa jakinak eman dira, zeregin honetarako oinarrizko irizpideak finkatuz, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa eta lurralde bakoitzaren berezitasun soziolingüistikoak kontuan hartuta.
- Udal-euskaltegi-tako irakasleen hautaketako epaimahaietan HABEren izenean parte hartu da, probak diseinatuz eta hautagaien azterketak ebaluatuz.
- 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 11. artikuluan eta 2020ko azaroaren 30eko Ebazpenaren I. eranskineko 4. eta 7. oinarrietan eta III. eranskinean xedatutakoa zuzen eta egoki betetzen dela bermatzeko, euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek mailaren atalasearen gaineko ebaluazioetan baliaturiko proba-ereduak aztertu dira.
- *Se ha continuado actualizando el HEOC, tras el estudio comparado realizado con los criterios curriculares establecidos tanto en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas como en los contenidos establecidos en la Orden de 9 de septiembre de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula la evaluación y certificación de competencias lingüísticas en euskera, y se fijan los criterios para las convocatorias de ayudas al alumnado de euskera para adultos.*
- *Se han aplicado los criterios recogidos en el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Personas Adultas en la elaboración y desarrollo de material curricular (textos prototípicos, documentos complementarios...).*
- *En el marco de la normativa vigente, y en el contexto de las propuestas de innovación propuestas a los euskaltegis para la actualización de sus ECPs, se han establecido cauces de interrelación con los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje del euskera para la elaboración de secuencias didácticas paradigmáticas para el cumplimiento de los objetivos establecidos en el HEOC.*
- *Se han abierto espacios de interacción y colaboración con los euskaltegis y centros de autoaprendizaje del euskera para el desarrollo e implementación del Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Personas Adultas para, una vez aprobados los ECPs, establecer los mecanismos oportunos para canalizar las adecuaciones pertinentes.*
- *Se ha ofrecido a los euskaltegis un servicio de asesoría técnica para el desarrollo y actualización de su proyecto curricular de centro.*
- *Se ha continuado analizando, evaluando y reformulando los descriptores correspondientes a las distintas destrezas lingüísticas, básicos a la hora de aportar la información correspondiente sobre los procesos de acreditación de los alumnos en los distintos niveles de competencia comunicativa.*
- *Se han conocido aproximaciones interinstitucionales en la formulación de los criterios básicos para la elaboración de un curriculum para la euskaldunización de adultos, compartido y válido para todos los ámbitos administrativos del euskera, tomando en consideración el Marco Europeo de Referencia para las Lenguas y las características propias de cada comunidad, concretando y consensuando en función de dichas peculiaridades sociolingüísticas.*
- *Se ha tomado parte en los tribunales de selección de profesores de los euskaltegis municipales en representación de HABE, diseñando las pruebas y evaluando los exámenes realizados por los candidatos.*
- *Se han analizado las pruebas utilizadas por los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje de euskera en las pruebas utilizadas para la evaluación de dominio de la lengua, con el fin de garantizar el correcto y adecuado cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 11 de la Orden de 9 de septiembre de 2020 y en las bases 4 y 7 del anexo I y en el anexo III de la Resolución de 30 de noviembre de 2020.*



2. MATERIALGINTZA-PROIEKTUAK ETA HOMOLOGAZIOA

- **INGURA:** APP bidezko A1-A2 mailatarako autoikaskuntza-ikastaro digitala diseinatu eta garatzeko oinarri didaktikoak eta teknologikoak aztertu dira.
- LMS bidez kudeatutako A1-C1 mailatarako INGURA autoikaskuntza-ikastaro digitala diseinatu eta garatzeko oinarri didaktikoak eta teknologikoak aztertu dira.
- Primeran C1 egitasmoa kontratatzeke lehiaketa egin da eta oinarriak ezarri dira.
- B2 mailarako Primeran langaien aurkezpen-ikastaroak egin dira. Eta jarraipen-, eta aholkularitza-lanak burutu dira.
- Hizkuntzen ikaskuntza-metodologia eta eduki teknodidaktikoen sorkuntzari buruzko prestakuntza eman da, EHUko "Helduen euskalduntze aditua" masterrean.
- "Erraza da" Ostalaritza eremurako eduki didaktiko-digitalen sorkuntzan lankidetzeta eta aholkularitza eman da.
- Ikasmaterialeen sorkuntza eta erabilera indartzeko sustapen eta komunikazio-eredu berriak aztertu eta proposamenak egin dira.
- Ikas/irakaskuntza metodo berriak oinarri hartuta, gramatika eta hiztegia lantzeko proposamenak aztertu, sortu eta argitaratu dira IKASBIL atarian.
- Euskal komunikabideetatik hartutako testu, entzungai eta bideoak nahiz euskal literaturako irakurgaiak katalogatu eta HEOCaren irizpideei jarraikiz didaktizatu dira, IKASBIL atarian argitaratu eta euskaltegietakoa ikasle eta irakasleen esku jartzeko.
- A1, A2, B1, B2, C1 eta C2rako sekuentzia didaktikoak sortu eta IKASBIL atarian argitaratu dira.
- HABE aldizkaria online argitaratu da:
- Euskal literaturaren ekoizpenaren jarraipena egin eta irakurgai mailakatu eta didaktizatuen gida osatzen jarraitu da IKASBIL atarian.
- HABEren langaien analisirako oinarritzko txostena idatzi eta ekintzen plangintza proposatu da.
- Langaien ebaluazioa: HABEren atarien helburuen betetze-maila ezagutzeko inkestak burutu dira erabiltzaileen artean. Gainera Interneteko Google analytics zerbitzuak erabili dira erabilera datu objektiboak eskuratzeko eta horietan oinarrituta beharrezko txostenak garatzeko.

2. PROYECTO DE ELABORACIÓN Y HOMOLOGACIÓN DE MATERIALES

- *Se han analizado las bases para el diseño y desarrollo didáctico-tecnológico de un curso de autoaprendizaje A1-A2 mediante APP.*
- *Se han analizado las bases para el diseño y desarrollo didáctico-tecnológico de los cursos INGURA de autoaprendizaje A1-C1 gestionados mediante LMS.*
- *Se ha procedido a la realización del concurso para la contratación del proyecto Primeran C1 y se han propuesto las bases.*
- *Se han realizado cursos formativos del material Primeran para el nivel B2. de formación. Y se han realizado una evaluación y asesoramiento relativo a la aplicación del material.*
- *Se ha impartido formación en el master "Helduen euskalduntze aditua" de EHU sobre metodologías en el ámbito de la enseñanza-aprendizaje de lenguas y creación de contenidos tecno-didácticos.*
- *Se ha asesorado y colaborado en el proyecto "Erraza da" relacionado con la creación de contenidos didácticos digitales para el sector de la hostelería.*
- *Se han analizado diferentes modelos de promoción y comunicación con el objetivo de impulsar el uso y creación de materiales didácticos.*
- *Se han creado y publicado en el portal IKASBIL propuestas de enseñanza y aprendizaje de contenidos gramaticales y léxicos, basadas en los nuevos métodos de aprendizaje de lenguas.*
- *Se han catalogado y didactizado, según las directrices formuladas en el curriculum básico HEOC, textos periodísticos, audios y videos actuales de medios de comunicación euskaldunes y textos literarios para su uso por docentes y alumnado de los euskaltegis desde el portal IKASBIL.*
- *Se han creado y publicado secuencias didácticas para los niveles A1, A2, B1, B2, C1 y C2 en el portal IKASBIL.*
- *Se ha publicado la revista online HABE.*
- *Se ha realizado un seguimiento de la producción literaria, para proceder, si cabe, a su posterior catalogación y didactización por niveles en el portal IKASBIL.*
- *Se ha redactado un informe sobre las bases del análisis de los materiales didácticos que crea y publica HABE y se ha propuesto un plan de acción.*
- *Evaluación de materiales didácticos: Para conocer el nivel de cumplimiento de los objetivos de los portales de HABE se han llevado a cabo encuestas de opinión entre sus usuarios. Además, se ha utilizado el servicio de Google analytics para obtener datos objetivos de uso de los portales de HABE y redactar informes basados en ellos.*



3. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

- Euskaltegietak irakasleen eta zuzendaritza-taldeen prestakuntzarako ikastaro, mintegi eta hitzaldiak antolatuta dira.
- HABEren euskalduntze-mailak egiaztatze diharduten aztertzaileen irizpideak bateratzeko saioak burutu dira.
- Irakasleen etengabeko prestakuntzarako online modulu berriak diseinatu dira.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskara Institutuaren artean sinatutako helduen euskara-irakasleen eta hizkuntzaren didaktikan teknikari diren "Helduen euskalduntze aditua" unibertsitate-agiria eskaintzeko hitzarmenaren arabera, dagokion graduondoko masterra eman da.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (Bilboko Hezkuntza Fakultatearen bidez) arteko lankidetzaren hitzarmena lantzen jarraitu da. Hitzarmen honen xedea da arautzea HABEren eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren eremua (azken honen kasuan, Ikerketa Erretoreordetzaren bidez), HABEko ataza zehatz batzuk oinarri hartuta, corpusak digitalizatu eta prozesatu, ebaluazio-ataza batzuk modu kualitatiboan eta kuantitatiboan ebaluatzeko, datuok esploratzeko baliabideak sortzea. Alor horretan zenbait corpus dokumentu digitalizatu dira eta laister batean corpus askoz ere zabalagoa izateko oinarriak jarri dira.

4. IKERKETA-LERROAK

- Helduen euskalduntzearen egungo egoera eta 2009/2010 ikasturteik gaur arteko euskaltegien bilakaera aztertuz, etorkizunerako hausnarketarako txostena egin da.
- Udal-euskaltegien egungo egoera zedarrizteko, euskaltegien diru-iturriak eta finantzazioa aztertuz, bihar-etziko helduen euskalduntzearen eskaintza publikoaren nolakoa zedarrizteko eta euskara-ikasleen behar-premien araberrako eskaintza doitzeko udal euskaltegien azterketa txostena egin da.
- Helduen euskararen ikasketa-prozesuaren egiaztatze gintzak Europako hizkuntzen ikasketa-prozesuetan ematen diren gertakari, jarraibide eta emaitzekin alderatzeko ikerketa-lerroa ez da abian jarri.

5. BEKAK

- Aurreko urtean esleitutako bi beken arloan, bi ikerketa-egitasmo bideratu eta burutu dira HABEkin tutoretza-lana eskainiz, eta jarraipen administratiboa egin.
- HABEren hizkuntza- eta pedagogia-corpuseko testu-bildumen azterketa eta egituraketa-proposamena, hizkuntza-teknologiak garatzeko.

3. FORMACIÓN DEL PROFESORADO

- *Se han organizado cursos, seminarios y conferencias formativas destinadas al profesorado y a directivos de los euskaltegis.*
- *Se han desarrollado sesiones de unificación de criterios dirigidas a examinadores de las pruebas de acreditación de niveles de HABE.*
- *Se han diseñado nuevos módulos online para la formación continua del profesorado.*
- *En el marco del convenio de colaboración suscrito entre Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) y el Instituto del Euskara de la Universidad del País Vasco para la prestación del título universitario de "experto en euskaldunización de adultos" de los profesores de euskera de adultos y técnicos de didáctica de la lengua, se ha impartido el correspondiente master de formación postgrado.*
- *Se ha desarrollado el convenio de colaboración entre el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y la Facultad de Pedagogía de Bilbao de la Universidad del País Vasco suscrito. El objetivo de este convenio es el de formalizar la relación entre HABE y el Vicerrectorado de la Universidad del País Vasco, para digitalizar y procesar determinado corpus lingüístico-pedagógico de HABE, basado en tareas comunicativas y explorar la posibilidad de generar herramientas tecnológicas de evaluación cuantitativas y cualitativas. En ese ámbito se han digitalizado varios documentos y se han dado los pasos tendentes para digitalizar un corpus mucho más amplio*

4. LÍNEAS DE INVESTIGACIÓN

- *Se ha publicado un informe analizando la situación actual de la euskaldunización de adultos y la evolución de los euskaltegis desde el curso 2009/2010, como punto de reflexión para el futuro.*
- *Se ha publicado un informe analizando la actual situación de los euskaltegis municipales, sus fuentes y recursos de financiación para delimitar las características de la oferta pública a realizar a corto y medio plazo, con el objetivo de ajustar dicha oferta a las necesidades de los alumnos.*
- *No se ha iniciado el proyecto de investigación, para comparar las bases, criterios, procedimientos y resultados que se conocen en los procesos de enseñanza de segundas lenguas europeas a adultos.*

5. BECAS

- *En el ámbito de las dos becas de colaboración se han desarrollado y finalizado dos proyectos de investigación tutelados por HABE, efectuándose su seguimiento administrativo y técnico.*
- *Análisis del corpus lingüístico-pedagógico de HABE y propuesta de estructuración para su desarrollo en entornos tecnológicos digitales.*



- Bigarren hizkuntzen arloan egiaztatze-proben analisi konparatiboa egin, eta egun HABEn indarrean dagoen eredia aldatzeko etorkizunerako proposamena landu.

6. ARGITALPENAK

- HEOC eguneratua eta osatua argitaratu da.
- Ez da plazaratu HABEren egiaztatze-gintzako B1, B2, C1 eta C2 mailako testu eredugarriak biltzen dituen argitalpena.
- e-HIZPIDE aldizkariaren onlineko bi zenbaki eman dira argitara 97 eta 98
- e-Hizpide aldizkariaren 99 eta 100 zenbakiak plazaratzeko prestaketa-lanak bideratu dira.
- Irakasleen Formaziorako Bideo-sailaren baitan bost bideo-ale eman dira argitara horiek guztiak irakasleen prestakuntzara zuzenduta.
- "COMMON EUROPEAN FRAMEWORK OF REFERENCE FOR LANGUAGES: LEARNING, TEACHING, ASSESSMENT: Companion volume" euskarara itzuli eta argitaratu ahal izateko maketazioa burutu da.
- Itzulpen Saila bildumako 57. zenbakia argitaratu ahal izateko itzulpen-lana esleitu da.

7. ONDARE BIBLIOGRAFIKOA ZABALDU ETA LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK HEDATU

- Ondare bibliografikoaren zabalkuntzarekin jarraitzeko 788 liburu berri erosi dira.
- Katalogoa elikatu da 1000 erregistro/ale berriekin.
- ALERTAK egitasmoaren inguruan 132 aldizkaritako 300 artikulu bidali dira PDF formatuan.
- Liburutegiko zerbitzuak zabaltzeko helburuz, lankidetzaharremanak sendotzeko bilera proposamenak eta kontaktuak egin dira erakunde hauekin: Euskarabidea (Nafarroako Gobernua), Euskararen Erakunde Publikoa (Iparraldea), Berritzeguneak, Helduen Hezkuntza Iraunkorra (Eusko Jaurilaritza, Hezkuntza Saila). Arrazoizko diferentziak tarteko, ezin izan dira burutu bilera hauek.
- DIALNET datu-basea elikatu da sinatutako hitzarmenaren ondorioz konprometitutako aldizkariaren informazioarekin.
- Liburutegiaren izaera eta zerbitzuak gizarteratzeko helburuz, komunikazio-plan bat lantzeko asmoz, kontratazio bat burutu da Sorland enpresarekin. Plangintza eta lehenengo azterketak abian jarri dira.
- Liburutegiaren arteko mailegu eta artikuluen eskariak kudeatzeko Tipasa aplikazioa ezarri da.

- *Análisis comparativo de las pruebas de acreditación en el ámbito de la enseñanza de segundas lenguas y propuesta de modificación del modelo vigente en HABE.*

6. PUBLICACIONES

- *Se ha publicado una edición corregida y aumentada del HEOC.*
- *No se ha editado la publicación que recoge textos paradigmáticos de los niveles B1, B2, C1 y C2 de los procesos de acreditación de HABE.*
- *Se han editado dos ejemplares de la revista e-HIZPIDE online, los números 97 y 98.*
- *Se han realizado los trabajos de preparación para la edición de los números 99 y 100 de la revista e-Hizpide.*
- *Se han publicado cinco videos para la colección Irakasleen Formaziorako bideo-saila, dirigidos a la formación del profesorado.*
- *Se ha traducido al euskera el ensayo: "COMMON EUROPEAN FRAMEWORK OF REFERENCE FOR LANGUAGES: LEARNING, TEACHING, ASSESSMENT: Companion volume" y se ha realizado la maquetación correspondiente de a cara realizar su publicación.*
- *De cara a la publicación del n. 57 de la colección Itzulpen Saila, se ha adjudicado el trabajo de traducción correspondiente.*

7. AMPLIACIÓN DEL FONDO BIBLIOGRÁFICO Y DIFUSIÓN DE LOS SERVICIOS DE LA BIBLIOTECA

- *Se han adquirido 788 nuevos libros para continuar con la ampliación del fondo bibliográfico.*
- *Se ha alimentado el Catálogo con 1000 nuevos registros/ejemplares.*
- *En torno al servicio ALERTAK, se han enviado un total de 300 artículos en formato PDF correspondientes a 132 revistas.*
- *Con el objetivo de ampliar los servicios de la biblioteca, se han realizado contactos y propuestas de reuniones con los siguientes organismos: Euskarabidea (Gobierno de Navarra), Euskararen Erakunde Publikoa (Iparraldea), Berritzeguneak, y EPA (Gobierno Vasco, Consejería de Educación). Por diferentes motivos, no se han podido llevar a cabo estas reuniones.*
- *Se ha alimentado la base de datos DIALNET con la información de las revistas acordadas en el convenio firmado con dicha entidad.*
- *Con el objetivo de elaborar un plan de comunicación para divulgar la naturaleza de la biblioteca y los servicios que ofrece, se ha contratado a la empresa Sorland. Se han realizado la planificación y los primeros análisis.*
- *Se ha implementado la aplicación Tipasa destinada a la gestión de las solicitudes de artículos y préstamo interbibliotecario.*



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

- Liburutegiko bloga eta Twitter, Facebook eta Pinterest kontuak elikatu dira nobedade aukeratuen zabalkunde bideratzeko. Padlet aplikazioa ere erabili da.
- Sare sozialetan, bereziki Twitterren, nobedade aukeratuen berri ematerakoan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, feminismoa eta hizkuntza eta generoa aztertzen dituzten lanen berri emateko ahalegin berezia egin da.
- Euskal Autoritateak Finkatzeko lantaldearen hamaika lan-saio egin dira aurten. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondare Zuzendaritza eta Liburutegi Zerbitzuarekin adostutakoari jarraiki, lantaldeak finkatutako 225 autoritate AUBIn txertatu dira, modu honetan profesionalentzat kontsultagarri egon daitezten. Urtean zehar lantaldearen konposaketa zabaldu eta egonkortu egin da. Erakunde hauek osatzen dute taldea: Baionako Mediateka-Bilketa, Baionako Euskal Museoa, Ikas-Euskal Pedagogia Zerbitzua, Nafarroako Liburutegi Publikoetako langile eta ASNABiko partaide diren bi kide, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren Euskariana proiektua, Eima Katalogoa, Renoko Jon Bilbao Liburutegia eta HABE Liburutegia. UEUK urtero antolatzen duen Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen bilkura EAL lantaldeak antolatu du 2021ean edukari dagokionean. 2021eko uztailaren 1ean ospatu da. 2021eko urriaren 13an Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondare Zuzendaritzaren arduradunarekin, Liburutegi Zerbitzuko zerbitzu-buruarekin eta Euskariana proiektuaren arduradunarekin. Bertan lankidetzarekin jarraitzea adostu da.
- Jarraitu da liburu-aldizkarien soberakinak eskaintzen. Aurten Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareari eskaini zaizkio liburuak eta aldizkariak.
- Euskaltzaindiarekin lankidetzan aritu da Liburutegia euskararen historia sozialari buruzko erreferentzia bibliografikoen datu-basea eguneratua mantentzeko helburuarekin.

8. BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA

- 2021eko Berdintasunerako kudeaketa plangintza egin da.
- Berdintasun arloko jarduketan jarraipena eta 2020ko emaitzen ebaluazioa egin da, Emakunde ezarritako ebaluazio-tresna erabiliz eta dagokion aplikazioan betez, erakundearen administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko egindako aurrerapenaren analisia egin da.
- Berdintasun arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin solaskidetzak teknikoak eta koordinazioa mantendu da.

• *Se han alimentado el blog y las cuentas de Twitter, Facebook y Pinterest de la Biblioteca con vistas a la difusión de una selección de las novedades. También se ha utilizado la aplicación Padlet para ofrecer información sobre colección de documentos.*

• *Al hacer difusión de una selección de las novedades, se ha hecho especial hincapié en dar a conocer aquellos trabajos que tratan sobre la igualdad entre hombres y mujeres, feminismo y lengua y género.*

• *Se han realizado once sesiones de trabajo del grupo para el establecimiento de las autoridades vascas. Además, siguiendo lo acordado en la reunión con la dirección de Patrimonio Cultural y el Servicio de Bibliotecas del Gobierno Vasco, se han implementado en AUBI 225 autoridades validadas por el grupo, de manera que puedan ser consultadas por los profesionales. A lo largo del año el grupo de trabajo se ha ampliado y consolidado. El grupo de trabajo está compuesto por: Mediateca de Bayona, Museo Vasco de Bayona-Bilketa, Ikas-Euskal Pedagogia Zerbitzua, dos bibliotecarios de las bibliotecas públicas de Navarra y miembros de ASNABI, el Servicio de Bibliotecas del Gobierno Vasco, el proyecto Euskariana del Gobierno Vasco, Eima Katalogoa, la biblioteca Jon Bilbao de Reno y HABE Liburutegia. En 2021 el grupo EAL ha sido el encargado de organizar, en cuanto al contenido, la jornada "Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen bilkura" que cada año organiza la UEU. Se ha celebrado el 1 de julio de 2021. El 13 de octubre de 2021 se ha celebrado una reunión con el director de Patrimonio Cultural, la jefa de servicio del Servicio de Bibliotecas y la responsable del proyecto Euskariana del Gobierno Vasco. Se ha acordado continuar con la colaboración.*

• *Se ha continuado con la tarea de ofrecer a otros centros los duplicados y excedentes de la biblioteca. Este año se han ofrecido libros y revistas a la Red de Lectura Pública de Euskadi.*

• *La Biblioteca ha colaborado con Euskaltzaindia para mantener actualizada la base de datos de referencias bibliográficas relativas a la historia social del euskera.*

8. IMPULSO Y COORDINACION DE POLITICAS DE IGUALDAD

- *Se ha elaborado el plan de gestión en materia de igualdad 2021.*
- *Se ha realizado el seguimiento y la evaluación de resultados del año 2020 cumplimentando las herramientas evaluativas requeridas por Emakunde en el aplicativo correspondiente. Análisis del avance en la inclusión de la perspectiva de género en la actividad administrativa del organismo.*
- *Se ha mantenido la interlocución y la coordinación con entidades, órganos y unidades competentes en materia de igualdad.*



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

- Eusko Jaurlaritzako sailen arteko talde teknikoaren 3 bileretan parte hartu eta proposaturiko lan teknikoetan ekarpenak egin dira.
- Genero-ikuspegia erakundearen administrazio-jardueran eta politika sektorialean txertatzeko helburuarekin generoari buruzko 16 txosten teknikoak egin dira.
- Genero-berdintasunaren esparruko 56 kontsultak erantzun dira eta 50 komunikazio eta informazio zabaldu dira.
- EAeko euskaltegietan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko neurriak, politikak eta jarrerak ezagutzeko ikerketa abiarazi da. Informazio kualitatiboren galdetegia diseinatu, informazioa jaso eta ustiatu da eta hiru lurraldeetan talde eztabaidak antolatu dira. Ikerketa 2022an bukatuko da.

9. EUSKALTEGIEN ETA BESTELAKO ZENTRO HOMOLOGATUEN JARDUERAREN ERAKETA ETA JARRAIPENA

- Emandako laguntza ezarritako helburuak lortzeko erabili dela egiaztatzeko aurrez aurreko ikusketa-plana euskaltegi publiko zein pribatuetan egitea ezinezkoa izan da, COVID-19ak sortutako pandemia murrizteko hartutako neurriek ez dutelako ahalbidetu aurrez aurreko harremana euskaltegiekin. Dena den, erakundeak, ohikoa duen moduan, bere kontrol telematikoekin jarraitu du eta euskaltegien jarduna hauen bitartez ikuskatu da.
- HAEE, Hezkuntza Saila, Justizia Saila, Osakidetza eta Segurtasun Sailekin sinatutako hitzarmenei jarraikiz, Administrazio Orokorreko langile eta funtzionarioak euskalduntzeko aurrez aurreko 62 talde berezi antolatu dira. Autoikaskuntza ereduak sorta berezi bi ere antolatu dira, EJIerentzat 37 ikaslez osatutako sorta eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarentzat 15 ikasleko sorta. Talde berezietatik kanpo, 4.902 herri-langilek euskalduntzen jarraitu dute; 2.568 aurreko ikasturtetik eratorriak eta 2.334 ikasturte berrikoak.
- Lanbiderekin sinatutako kudeaketa gomendioaren bitartez 663 ikasleei eskolak eskaini zaizkie, 379 ikasle aurreko ikasturtetik eratorriak eta 284 ikasturte berrikoak.
- Euskalduntze-alfabetatzeko sektorearen jarduera jakinarazteko eta horren matrikulazioa sustatzeko informazio eta sentsibilizazio-kanpaina egin da.

10. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEKO SEKTOREAREN FINANTZAZIOA

- Udal euskaltegientzat dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu egin da. Guztira 39 euskaltegi izan dira onuradunak.

- *Se ha participado en 3 reuniones del Grupo Técnico Interdepartamental de igualdad del Gobierno Vasco y se ha realizado el trabajo técnico solicitado por dicho grupo.*
- *Con el objetivo de incluir la perspectiva de género en la actividad administrativa y la política sectorial del organismo se han elaborado 16 informes técnicos.*
- *Se han atendido 56 consultas y se han difundido 50 comunicaciones e informaciones en materia de igualdad de género.*
- *En referencia al estudio sobre medidas, políticas y actitudes de los euskaltegis de la CAE sobre la igualdad de mujeres y hombres se ha puesto en marcha y se ha realizado el trabajo de campo cuantitativo con el diseño, recogida y explotación de un cuestionario y se han realizado grupos de discusión en los territorios. El estudio se finalizará en el 2022.*

9. ORDENACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LA ACTIVIDAD DE LOS EUSKALTEGIS Y DEMÁS CENTROS HOMOLOGADOS

- *El programa presencial de inspecciones a los euskaltegis públicos y privados al objeto de comprobar la utilización de la ayuda concedida a los fines establecidos, no ha podido realizarse debido a las medidas adoptadas para frenar la pandemia del COVID-19. No obstante, la entidad ha continuado con sus controles telemáticos habituales y se ha inspeccionado la actividad de los euskaltegis mediante los mismos.*
- *De conformidad con los convenios firmados con el IVAP, el Departamento de Educación, el Departamento de Justicia, Osakidetza y el Departamento de Seguridad, se han organizado 62 grupos específicos de euskera para el personal de la Administración General. También se ha organizado dos grupos de autoaprendizaje; uno de 37 personas para EJI y otro de 15 para el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. Además del alumnado de los grupos especiales, han continuado con su aprendizaje 4.902 trabajadores y trabajadoras del sector público; 2.568 que iniciaron su andadura el curso pasado y 2.334 en el presente curso escolar.*
- *De conformidad con la encomienda de gestión firmada con Lanbide se han impartido cursos a 663 personas; de las cuales 379 iniciaron su andadura el curso pasado y 284 en el presente*
- *Se ha hecho una campaña informativa y de sensibilización relativa a la divulgación de la actividad del sector de la euskaldunización-alfabetización y al fomento de la matriculación.*

10. FINANCIACIÓN DEL SECTOR DE LA EUSKALDUNIZACIÓN-ALFABETIZACIÓN

- *Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas a euskaltegis públicos. En total, se han beneficiado 39 euskaltegis municipales de la CAE.*



- Euskaltegi pribatu eta autoikaskuntzarako zentroentzat dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu egin da. Guztira 57 euskaltegi pribatu eta 6 autoikaskuntzarako zentro izan dira onuradunak.
- HEOCean finkatutako mailaren bat (edo beren baliokideak) gainditu duten ikasleentzako dirulaguntzen deialdia amaitu eta esleitu da. 5.360 onuradun izan dira guztira, horietatik 4.495 A1etik B2ra bitarteko mailetan eta 865 C1 eta C2 mailetan.

11. IKAS-IRAKASPROZESUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Curriculumaren A1 eta A2 maileri dagozkien agiriak banatu zaizkie euskaltegiatiko ikasleei komunikagaitasun-maila horiek egiaztatzeko ezarritako lau garaitan.
- Curriculumaren B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko azterketen bi azterketaldi diseinatu eta burutu dira. Euskaltegi bidezko deialdiotan, 17.337 azterketari matrikulatu dira: 2.166 azterketari B1 mailan, 5.456 B2 mailan, 8.090 C1 mailan eta 814 C2 mailan.
- Halaber, B1, B2, C1 eta C2 mailetan deialdi irekiko bi azterketaldi diseinatu eta burutu dira. Deialdi irekian, 9.700 azterketari matrikulatu dira: 717 B1 mailan, 2.414 B2 mailan, 6.212 C1 mailan eta 357 C2 mailan.
- Bestalde, HABEren Ordenagailu Bidezko Egiaztatzea (HOBE) gauzatzeko, 513 azterketarik egin dute matrikula: 424k C1 mailan eta 89k C2 mailan.
- B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko deialdiotan, 717 aztertzaile, 40 aztertzaile-ikerle eta 44 tutore aritu dira.
- Kontuan hartuta azterketari-populazio osoan bideratu dela zuzenketa bikoitza, Kappa indizeak aztertzaileen arteko adostasun-mailak kalkulatzeko aplikazio-atala diseinatu eta Q87 aplikazio nagusiaren baitan lekutu da, adostasun-mailak aztertzaileen artekoak nahiz aztertzaile bakoitzaren eta tutore bakoitzak onetsitako emaitzen artekoen indizeak kalkulatu.
- Euskaltegi bakoitzeko ikasleek HABEren egiaztatze gintzan izandako emaitzak landu dira.

12. TEKNOLOGIA BERRIEZ BALIATUZ, ETENGABEKO HOBETUNTZA SUSTATU EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN

- IKASBIL atariaren edukien eta diseinuaren jarraipena eta berrikuntzak egin dira.
- IKASBIL-APP egitasmoaren oinarriak aztertu dira.
- Behar didaktiko berriei erantzuteko hizkuntza-teknologiak aztertu eta ezarri dira.

Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas a euskaltegis privados y centros de autoaprendizaje. En total, se han beneficiado 57 euskaltegis privados y 6 centros de autoaprendizaje.

Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas a las alumnas y alumnos que han superado algún nivel del HEOC o equivalente. 5.360 han sido las personas beneficiadas, de las cuales 4.495 han certificado niveles entre A1 y B2 y 865 han certificado C1 y/o C2.

11. SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PROCESO DE ENSEÑANZA-APRENDIZAJE

- *Se ha procedido a la expedición de los diplomas correspondientes a los niveles A1 y A2 al alumnado de los euskaltegis en los cuatro periodos establecidos para la acreditación de dichos niveles de competencia comunicativa.*
- *Se han diseñado las pruebas relativas a los niveles B1, B2, C1 y C2, y se han materializado dos periodos de exámenes correspondientes a la convocatoria para el alumnado de los euskaltegis en las que se han matriculado 17.337 examinandos: 2.166 en el nivel B1 5.454 en el B2, 8.901 en el C1, y 814 en el C2.*
- *Asimismo, se ha procedido a la realización de os periodos de exámenes en convocatoria abierta para la acreditación de los niveles B1, B2, C1 y C2 en la que se han matriculado 9.700 examinandos: 717 en el nivel B1, 2.414 en el B2, 6.212 en el C1 y 357 en el C2.*
- *Por otro lado, para realizar por ordenador las pruebas de acreditación de los niveles de euskera C1 y C2 se han matriculado 513 examinandos: 424 en el nivel C1 y 89 en el nivel C2.*
- *En las convocatorias para la acreditación de los niveles B1, B2, C1 y C2, han participado 717 examinadores, 40 examinadores expertos y 44 tutores.*
- *Teniendo en cuenta que la totalidad de los examinandos ha participado en un sistema de corrección doble, se diseñó un módulo específico, dentro de la aplicación Q87, a fin de calcular los niveles de concordancia (índice Kappa) entre examinadores. Se han calculado dos índices: inter examinadores y examinador-tutor.*
- *Se ha realizado el análisis de los resultados obtenidos en las pruebas de acreditación por cada euskaltegi.*

12. APROVECHAMIENTO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS PARA LA MEJORA CONTINUA EN LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA

- *Se ha realizado el seguimiento y renovación de los contenidos y del diseño de IKASBIL.*
- *Se han analizado las bases para el proyecto IKASBIL-APP.*
- *Se han analizado tecnologías del lenguaje que respondan a nuevos diseños didácticos.*



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

- IKASTEN autoikaskuntza plataforma kudeatuko da. 11.000 erabiltzaileen (ikasle eta irakasle) lineako jarduera zaindu eta beharrezko aholkularitza eta formazio lana egin da.
- IKASTEN autoikaskuntza plataforman 58 euskaltegiri beren ikastaro online eskaintza emateko azpiegitura eman eta horren kudeaketa burutu da
- habe.euskadi.eus, ikasbil.eus eta IREKIA atarietan informazio, albiste eta deialdi berriak argitaratu dira. Gainera berrikuntzak egiten jarraitu da diseinu eta nabigazio-eskeman erabilera errazteko.
- IKASBIL eta IKASTEN atarietan jarduera didaktikoak argitaratzeko beharrezko ariketa-sortzailearen kontratatuaren jarraipena egin da.
- Facebook, eta Twitter sare sozialetan IKASBIL atariko material didaktikoa eta albisteak zabaldu dira. Bi konturen mantentze-lana burutuko da: Ikasbil eta Habe kontuak
- Euskaltegien esku jarri dira Aisa, Murgilduz, Primeran A2, Primeran B1 eta Primeran B2 (1-2) lineako ikastaroak IKASTEN plataforma bidez eskaini dira modu irekian. Gainera, ikastaro hauek euskaltegietakoko kudeatzaileen esku jarri dira jarraipena egin dezaten.
- IDITE lexiko-egiaztatzailea erabiltzeko kontratua egin da UZEI enpresarekin.
- Euskararen ikaskuntzaren didaktikan sakontzeko, alor berriak (H5P...) aztertu dira eta Ikasbil atariko sekuentzia didaktikoetan islatu dira.
- IKASBIL atari eta zerbitzuaren betetze-maila aztertzeko, adituen txostena eskatu da.
- Euskararen ikaskuntzari buruz HABEra hainbat alorretatik iristen diren proposamenak aztertu eta baloratu dira, HABEren arduradunei horien berri emateko.
- *Se ha administrado la plataforma de aprendizaje telemático IKASTEN: gestión y asistencia para la actividad de 11.000 usuarios (profesores y alumnos), formación y servicio de consultoría.*
- *Se ha dado soporte e infraestructura a 58 euskaltegis para impartir su oferta de cursos online en la plataforma IKASTEN.*
- *Se han publicado en los portales habe.euskadi.eus, ikasbil.eus e IREKIA novedades, información, noticias de interés y convocatorias. Además, se han realizado modificaciones en el esquema de navegación para facilitar su uso.*
- *Se ha realizado el seguimiento de la contratación del servicio de creación de ejercicios para IKASBIL e IKASTEN.*
- *Se ha difundido contenido didáctico y noticias de IKASBIL en las redes sociales Facebook y Twitter. Para ello se han utilizado dos cuentas: Ikasbil y Habe.*
- *Se han puesto a disposición de los euskaltegis los cursos basados en los materiales didácticos Aisa, Murgilduz, Primeran A2, Primeran B1 y Primeran B2 (1-2) para que los/las gestores/as de estos centros puedan hacer el seguimiento de los alumnos. Se han publicado las versiones abiertas de estos cursos para el uso autónomo de los/las alumnos/as.*
- *IDITE verificador de léxico en euskera. Se mantiene el contrato de uso de ese servicio con la empresa UZEI.*
- *Para profundizar en el aprendizaje del euskera, se han analizado nuevas propuestas didácticas (H5P...) y se han implementado en secuencias didácticas de Ikasbil.*
- *Para conocer el nivel de cumplimiento de los objetivos del portal IKASBIL se ha requerido un informe cualificado*
- *Se han estudiado diferentes propuestas relativas al aprendizaje de euskera que llegan de diferentes ámbitos, procediendo a su valoración e informando de los mismos a las personas responsables de HABE.*